



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

|    |          |  |               |  |               |    |
|----|----------|--|---------------|--|---------------|----|
| —: | 11 Urtea |  | 1929'ko Agoŕa |  | 129 Zenbakia. | :— |
|----|----------|--|---------------|--|---------------|----|

## Aita Adoain Agurgaria Euskalerian



Aita Esteban Adoain'dafa, Cuba ta Amerika-erdiko misiolari bikaña euskalduna al zan? galdetu zaigu. — Bai, irakurle, euskaldunza zan, emeretzigafen mendeko (gizaldiko) Misio-laririk bikañenetako au. 1808'an jaio zan Adoain deritzaion Napafoka-ko efitxoan eta oraindik orduan eta

Aren gaztearo guzian beintzat euskeraz itzegiten zan efi artan. Ogei urte zituen garaiean sartu zan Kaputxino; amar urteren buruko Meza emanik Iruña'ko ta Tudela'ko Komentuetatik igesi, auzena Bera'kora joaten ikusten degu, baño andik ere Rodil'n soldaduen bildurez Italia'ko Kaputxinoen komentu batera dijoala. An lau urte egiñik 1842'an Marsellan artu zuan Venezuela'ko misiotarako bidea. Baño urte erdi baten buruko ango beroak eta urak bere gorputza makaldurik, befiŕo Ustaritz'era itzuli bear izan zuan. Sendatu zan orduko, befiŕo lengo Misio bererako bideari ekin zion. Baño ango Gobernuak lanik egiten uzten etzielako, bear-tu ziran Cuba'ra joatea. 30 urte egin zituan Cuba, Guatemala ta San Salvador'ko efiŕ-efi, baztafez-baztar neke ta afixku gogofen artean animak zerurazten. Guatemalako'ko Gobernuak lur alde aietatik Kaputxino guziak botatzean Euskalefi aldera jo zuan befiŕo.

Bayona'ko Kaputxinotan Bera'ko Aita Fidel zegoan orduan Buruzagi, ta ara bildu zan gure Mixiolaria, artean Españan sartzerik etzegoalako. Ainbeste urteren buruan euskera aztuxe zuan eta beñiro ikasten edo gogoratzen aritu zelako beñiak ba-dauzkagu. Laxter arkitzen degu Biaritz eta Ustaritzen misioak euskeraz ematen; eta andik agurdo beñiz Uñuñe'n.

Eñi oietan egin zuen on aundiak eragin zion Bidasoa igaro ta emen oraindik bufuka gogofean zebiltzen gure gurasoen artean lan egiten astea. Baño lanean nola asi, Napafoa ta beste Euskal a'de guziok su ta gar bai-zeuden Karlos VII'na zanaren gudu edo gefan? Baño Misiolariaren beafa bai ementxe ba-zegoala. Berak emendik kanpora egin zituen urte guzietan alkari txarkeria nondik obeki egin ikasten bai zebiltzen guziak.

1873'an sartu zan Napafo'ra. Bost ilabete Estelerian edo Lizafa ta inguruko efietan egin zituen Don Karlos berari, Aren guduko Agintari ta soldaduei itzaldi zenbait egin zizkien an. eta batez ere aitortzen lana asko egin zuen, ango zauritu ta gaxoen artean.

Orduan Murietan Apaiz zegoana ere, Kaputxinoa zan. eta onen etxetik egiten zituan bere ateraldiak soldaduen egoitza ta etzauntzetara. Somofostro'ko matxinadara bear zutenai, ark egin zien itzaldi sutua Murietan.

1875'ean Zugafamurdir gure Misiolari onek eman zuen misioaz oraindik ere oroitzen dira orduko entzuntzaleak. Urte bereko Abenduan Beran arkitzen degu beste bat ematen. Amar egunez iraun zuen onek. Santa Barbara egunean *Artilleroai* erderaz egin zien itzaldia.

Irun'en Karlistak zuten lekuri afixkutsuenera jo zuan andik. Lastaola basefi ondoan itzaldi gartsua egin zien Gipuzkoako *Batallonai*. Gudu-mutil edo so'daduak antxe aitortzen ziran Aita Andoainekin. Egun batez Gipuzkoako zortzigaren taldea Aldabe'tik Lastaola'ra zan, emen Aita Adoain'ekin aitortzeko. Napar sail bat, Leitza'ko Gregorio Agife, *teniente*a, buru zutela, gelditu ziran zai Alunda ta Punta artean zeuden.

Eguzkiak bere aldia egin zuen eta gaua iluna zen. Oni eskefak Irun'go *Cabreristak* edo deitzen zituzten batzuek ateratzen dira ixil-ixilik zulo-mulo guziak bafena eñaxago urbiltzeko. Gure Napañak inguratzen dituzte ustekabeen eta su bizi-bizian asi zitzaizkien. Erasaldia iri erantzuten asi ziran, baño onek gutxi iraun zuan. Baño naikoa Agife ta bere beste bi edo iru lagunek bizia galtzeko. Lastaolan uste zuten jende askoz geiago zala ta Napañai laguntzeko asmotan abiatu zan Leandro Dikabea jauna, baño orduko etsaiak iges egin ondoren biziak ba-zetozen laguntza eta buruzagi bila. Aita Adoainen lagun zegoan Aita Etxalariek iges egin zuan Frantzira; baño Aita Adoain antxe gelditu zan zaurituei ta guziei beren naigabe erdian biotz ona eman naiez.

Ufengo egunetan etzan geldi egoten. Andik joaten zan Urkabe, San Markos, Astigafaga, Munuaundi ta Santiago mendira, ango karlistaen etzauntzetan itzaldiak egin eta aitortzera. Antxe ezagutu zuen Tudela'r batek esaten zigun:

Aita Adoain, bere gurutzea eskuan, itzaldia egin, eta Gurutze Santuari musu emateko azaltzen zitzaigunean, ba genun beti eriozketa gogofen bat.»

Txoritokietako lur-ebakietan Loma agintariak karlistei erasotzean, gipuzpoako irugafen eta laugafen *batallanak* aitortzen ari zen Aita Adoain, Gartziategi baseñan.



Aita Adoain Agurgaria Lastoala'n (F. Baztanen irudia.)


1876'eko Ilbetza osoa ta Otsaila geiena su-artean egin zuen Gure Misiolariak, zaurituak eta su-lekura joan beafak aitortzen. Orduen izan zan Tolosa'n ere gauza bera egiten. «Sakabanaldia baño egun batzuek lenagotik itzuli nintzan» esaten zion bere Adoain'go Anaiari Bayona'tik.

Andik laxter, urte bat orduko beñiro itzuli zan Napafora; baño orduan gure lengo etxeak beñiz ere Kaputxinoentzat idekitzeko asmotan. Bi urte gero go idekitzen zuen Iruñakoa, 1879'ko Agustuaren lenengoan. Aurten bete ditu ba befogei ta amar urte.

Ora ba, Aita Adoain Agurgariari zenbat zor dion Euskaleñiak. Ezta ba aritzekoa, orain Misiolari santu ori Aldaretara jaso naiez ba-gabiltz bere Anai Kaputxinoak eta Napafo csoa.

Bere bizitza afigariaren beñi guziak bildurik Efoma'ra eramanik daude ta eska zaiozue Jaungoikoari bere bidez bear dezuten mirarien bat eta irixten ba-dezute bere bidez, ofen beñia biali Aita Gumersindo Estallak-oari, Iruñera.

Ar'tur A.



Gartzain (Baztan)

## UDAZKENEAN

*Bizitz-bidean negu-arantzak  
biotz-mamia minberatzean  
udaberi-zai egon oi gera  
oñaze oro gozatu ustean.*

*Minberatiok udalenari  
muin goxoenak jatean befiz  
udara-aldiko ezti-iturian,  
amesten degu leyaz beterik.*

*Baña uda-zelai leguna ere  
negar-efiko arantz jabe izan  
ale guridun galburu oro  
ezpatadunak oi diran eran.*

*Ta asekaitza dan gizon-biotza  
udazken eder onen zai zegon  
arki gabeko zorian ura  
neuriz-goi emen arkitutzeko...*

*Emen ere, a! biotzak min du  
aiendu zaizka ustekeriak,  
itxaropenak uts-egin dio,  
ezin ase ditu kutiziak...*

*Txoriak minge..., enarak iges.,  
oriak erdoiz jausten ikustez  
negu gordiñez oroi da aufena...  
jta une bat geroz eriotz beltzez!*

*Ortzia goibel, bazterak afe  
dakusgunean zolda-tortikez  
negu gordiñez oroi gera, bai...  
jta une bat geroz eriotz beltzez!*

*Negar-erian bizi geranen  
soin argaletan beti da arantza  
eta ala ere goranez goran  
zorian bila lafi gailtza.*

*Loi-iturburura goaz ordea  
zorun-ibaian blai jar asmoan  
jta onek ezin arantza baizik  
zofozki jari gure kolkoan!*

*Bizitz-bideko arantz-ziztadak  
biotz-mamia oñazetzean  
apal makurtu ta artuko degu  
zoruna, noizpait, neufigabeen...*


Zubigar.

# Andra Marirenganako Egiatzko Jaiera

(Jaraipena)

## IRUGAREN AGEĀALDIA.

Andra Marirenganako Jaierakunderik onena.



### 1. Bařengo eta azaleko jaierakundeak.

NDRA Mariren omenezko jaierakundeak bařengoak, gogozkoak eta azalekoak, agirikoak, izan daitezke. Bařengoe-tan aundienak auek dira: Andra Mari, Jaungoikoaren Ama dalako, beste deun, *santu* guziak baiño geiago maitatu eta ospatzea; aren onbi-deak, aren egiteak eta aren aunditasun eta ederkun berarizkoak gogoan erabiltzea; arendako maite-

tasun, gorapen eta eskeronezko egintzak egitea, nork bere burua ari eskeiñi eta arekin bat egitea; lan guziak, gure azken elburu Jesu Kristorengatik, Jesu Kristoren baitan, Jesu Kristorekin eta Jesu Kristorendako egiteafen, Andra Marirengatik, Andra Mariren baitan, Andra Marirekin eta Andra Marirendako asi, jafaitu eta bukatzea.

Asko dira azaleko jaierakundeak: Andra Mariren izeneko senidetzaetan sartzea, gogopariak (*limosnak*), barauak eta beste edozein neke egitea, aren kutun edo irudiren bat nork berekin erabiltzea, agurtza (*erōsarioa*) eta beste zenbait otoiť esatea eta abar.

Egikunde oiek guziak oso onak dira eta zerurako bidean asko lagundu-ko digutenak; baiñan ofetarako asmo onez, biotzez eta era onean egin bear dira.

Baiñan oiek guziak baiño eragikofagoa, Andra Marirentzat atsegiña- goa, Jesu Kristorekin osoroago batuko gaituena, Jaungoikoarentzat, gores- gafiagoa, gure gogoentzat (*animentzat*) deungafiagoa eta lagun-urkoen- tzat onuratsuagoa da, ondoren erakutsi nai dan, Andra Marirenganako jaie- rakunde.

## 2. Zertan datzan jaierakunde guziz on ori.

Gure deuntasuna, *santu* izatea, Jesu Kristoren antzeko izatean, Jesu Kristorekin bat egiñik egotean datza. Beraz jaierakunderik onena Jesu Kris- toren kidekoago egiten gaituena, Jesu Kristorekin osoroago bat egiten gai- tuena izango da. Irazaki guzietan Andra Mari da Jesu Kristoren antzekoe- na; eta jaiera guzietan Andra Marirenganakoa, gure gogoia Jesu Kristoren antzeko geiena egiten duana. Zenbat eta osoroago ematen dion kristauak bere burua Andra Mariri, ainbat eta Jesu Kristori ere.

Emen erakutsi nai dan jaierakunde guziz on ori nork bere burua osoro Andra Mariri eskeintzean datza; aren bitartez Jesu Kristo gure Jaunarekin bat egin dezagun. Beraz Andra Mariri eskeiñi eta eman bear dizkiogu gure soiña (*gorputza*) bere zentzun eta aldeakin, gure gogoia (*anima*) bere al- menakin, gure soiñeko eta gogoko ondasun eta irabazi guziak; itz batez ge- ran eta degun guzia eman bear diogu Andra Mariri eta emaitz ofen orde- ez degu guk beste gauzarik nai izan bear, bere bitartez eta bere baitan Jesu Kristorenak izatea baizik.

Gure egintza onak ordainbide, irispide eta irabazpide dira guretzat. Ordainbide eta irispide diranez, egintza on oien bitartez gure gaiztakeriei dagokien nekea edo zigofa ordaindu eta eskar befiak iritxi ditzakegu; eta irabazpide diranez, gure gogoentzat (*animentzat*) eskaña (*grazia*) geiogo- tzea eta betiko zoriona irabazi dezakegu. Gure egintza onen ordainbidea, irispidea eta irabazpidea ere eman bear dizkiogu Andra Mariri; ordainbidea eta irispidea, berak atsegin duanari, emateko eta beste irabazpide eta ira- baziak guretzat begiratzeko, geiagotzeko eta edertzeko.

## 3. Egiatzko jaieraren osoro eskein- tzea, Bataioko itzak Beritzea da.

Kristaua, bataiatu baiño len, etsaiaren menpeko eta moñoi zan; eta Ba- taioan bere aoz edo bere aitaponteko edo amapontekoaren aoz, Satana ta bere egintza eta aundikeriak utzi eta Jesu Kristo artu zuan bere Jaun eta Ja- betzat, aren menpeko eta maitetasunezko moñoi izateko. Eta ori bera egi- ten da jaierakunde onen bitartez: etsaiari, munduari, gaiztakeriari eta nork bere buruari uko egin eta dan eta duan guzia Andra Mariren eskuz Jesu Kristori eman.

Kristau guziak eman zuten Bataioan etsaiari eta aren aundikeriai uko egiteko itza; baiñan nork betetzen du itz aundi ura? Ez al dute kristau geie- nak ufutzen Bataioan itzemandako zintzotasuna? Nundik sortu ote daiteke

zuzengabekeri òri, Bataioan emandako itzaz erabat, osoro, azturik bizitzetik baizik? Ez al da bada bidezkoa izango jaiera onen bidez Bataioko itz eta aginduak befitzea, gure buruak, Andra Mariaren bitartez, Jesu Kristori osoro eskeintzen dizkiogularik?

**Ataungo Bonifazio A.**

O. S. F. C.



Asis'ko Zauritua gozazten.


(Rialta)

# Coronula Stellarum duodecim B. M. V.


(“Cantus Mariales” liburutik artua)

Donostiar Jose A. A'k. ereskidetua


Di - - gna - re me lau-dá - - re te Vir - go sa-crá-ta.




Da mi - hi vir - tu - tem cón-tra hóstes tuos 1) Be - á - ta es



Vir - go Ma-rí - a quae Do - mi-num por-tás - ti Cre - a - tó-rem mun - di



ge - nu - is - - ti qui te fe - cit et in ae - ter - num per - manes Virgo -



R Gau - de Ma - ri - a Vir - go gau - - - de mil - li - es: Ave Maria



## «Menpekotasun gozoa»

(VERDAGUER)

«In vinculis caritatis» Maitasun 'kateetan.



Jesus txit laztan,  
Zeñen astuna  
Dan oben-kate gogoña..!  
T'ori autsita,  
Beste batetzaz  
Zuk nazu lotu. Jaun ona.

Nekerik neke  
Neufigabeko  
Atsegin gozo-eztira  
Naraman kate  
Maitasunezkoz  
Lotu nazu, Jaun maitea.

Estuntza sendoz  
Gurutzeari  
Jauna, ni lotu, bai, afen.  
Zuz bezela nork  
Bere besotan  
Bizia eman lezaken..!

*Sabiaga.*

*Iruña'n 1923-11-5'ean*



## Aozko Aitorpenaren Eginbidea



*Dixi: confitebor adversum me injustitiam meam Domino  
(Ps. XXX:3) Esan nuen: aitortuko diot nere kontra nere  
bidegabekeria Jaunari.*

GOZKO aitorpenaren aufetik egitekoak adierazirik dauzka-gu. Aozko aitorpena zer dan eta beraren eginbidea erakutsi bear orain.

Aozko aitorpena zer da?—Aozko aitorpena da, nork bere pekatu lafi guziak, gezurik gabe, Apezari aitortzea (N. K. I.)

Nork berak, bere agoz, aitortu bear ditu egin dituen gaiz-takeriak Elizak oitura au izan du beti; ta oiturak legea egin du.

Ala ere ezin esan da, lege ori naita-naiez beartzen gaituena danik. Aitorpena (konfesioa) beste bidez ere egin ditek zenbait aldiz. Mutuak eta ezin itzegin duenak kiñuz aitortu dezazke bere pekatuak eta ori naikoa du. Itzegin dezakenak ere, edo lotsa aundiz edo aztutzeko bildufez idatzi-ta (eskribiturik) erakusten ba-dizkio Apaizari bere pekatuak eta aien barkamena eskatu, aitorpen ona egingo luke.

Napafoako Kristau-lkasbideak, aozko aitorpenaz itzegitean, pekatu la-fia aitortzea, deitzen du aitorpena. Baño, aitortzea beartzen gaituenak oiek diralako dio: ez pekatu eta utsegin txikiak aitorpena egin ez ditekela. Utsegin txikiak besterik ez dituen ere aitortu ditek ba, ta bidez eta ondo-re onarekin ala ere, Trento'ko Eliz-Batzape Nagusiak dionaz. Nolako izan bear du ordea gure aitorpena?

### Aitorpena, apala izan bear du.

Apal edo umil agertzen da aita-amagana, oien esana ausi ondoren, bere utsegiña esan bear duen afa. Uzkur eta kuzkur dijoa auzitegira, beraz epai-leak (juezak) zer erabakiko duen eztakien gaizkileak.

Bidezkoa da, ba, gure oketik izkutatzen etzaiola dakigun Jaunagana apal, uzkur eta kuzkur joatea. Uzkur eta negafez urbildu zitzaion Magdalena santua Jesus onari. Onen onetan agertu zan belauniko. Len gaiztabiderako izan zituen begiak, ilea, ukenduak, Jaunagandik barkamena irixteko derabilzki orduan; eta Ari bakafik atsegiña emateko izango ditu andik auferantzean.

Ez bide zan alako itxuran joan Avila'ko Juan Agurgafiagana, aitortzera urbiltzean ark esan ziona: inpernu-usai aundia zakafela, ta aldatzeko bere soñekoak, nai ba-zuen Ark Barkatzea.

Ez ote litzaieke auxe eskatu gaurkoan askori? Agintariak uzten dute beren ezpata; Apaiz Nagusi ta Aita Santuak ere bai beren bereizgafiak, beste edozein pekatari bezala diralako aitortzekoan. Ta ez al dizu begietan ematen barkazio eske aro-año datorkizunak? Ta ez al diogu alaxe emango Jaungoikoari? Gogora ekartzu Jerusalem'go Jauretxera (templora) otoitz egitera sartu zan ferisau afoa.

### Aitorpena, egizkoa izan bear du.

Aitorpena egitean eztegu geren burua zuritu bear. Baizik soil-soil dan bezela agertu geren bafenbea edo kontzienzia. Liburu bat ideki-ta antxe arkitzen deguna Apaizari begi afean jafiko ba-genio bezela.



Legare'ko Uberka (Arasaten)

Dana dan bezala esan bear degu; ez geitu ta ez gutxituz. Jakiñen gañean dan baño geiago edo gutxiago; pekatua dan baño askoz txikiago edo lafiago balitz bezala agertzea, pekatu aundia litzeke

Ontan utsegin dezakegu, ez-baiezko gauza danean, geren burua leku onean uztea bakarik egiten ba-degu. Gure gaiztakeriaren aitzekia ta obena edo kulpia besteri botatzen ba-diogu. Naita egindako gaiztakeria, ezinbestean egin degula esaten ba-degu; baita ere gure gogozko gaiztabidea, ezin galerazi deguna balitz bezala agertuko ba-genu. Berdin utsegiten da, pekatu aundiak ezezkeritzat bagenauzke bezala laxterka ta axaletik aipatuz, gauza txikietan ardura aundia erakusten ba-da. Au da farisauena egitea. Jesus onaren eriotza bide okefenaz bilatzeko bildurik ez, ta Pilatoren auzitegira sartzeko bai.

### Aitorpena, osoa izan bear du.

Trento'ko Eliz-Batzafe Nagusiaren erabakia zofotza da ontaz: «iñork esango ba-lu penitentziko Sakramentuan pekatuak barkatzekoz, bear dan ardurazko azterpenaren (esamiñaren) bidez gogoratutako pekatu lafi guziak eta bakoitza eztirala jainkozko aginduz aitortu bear, ezta ere izkutuko peka-

tu, azkeneko bi aginduen kontra dijoazenak, ezta ere pekatua motaz aldazten duten aldagafiak, gaitzetsia (anatema) izan bedi».

Geroztik aitortu bear ditugu pekatu guziak eta bakoitza. Esan nai du, aitortu bear ditugula pekatu guziak, mota bakoitzetatik zenbat diran esanez; baita izkutuko edo gogoramenazko ta asmozko pekatuak ere, naiz azkeneko bi agindu (mandamentuen) kontra egiñak.

Geiago oraindik. Pekatuaren aldagafiak ere, au da pekatua bere motaz aldazten dutenak ere, bear ditugula aitortu.—Argiago esan dezagun. Pekatu afiak egin ditut esatea, ezta naikoa. Esan bear, zer gauzetan egin dan pekatu lafi ori, edo berdin dana zer motetakoa dan, azkeneko motaraño bereziz. Laugafen mandamentua ausi det esatea ezta naikoa. Zertan ausi dezu agindu ori? Gurasoa ez maitatu? Ari lotsa galdu? Aren esanak ez egin? Ofa agindu ortan berean berezi bear diran iru motetako pekatuak. Onela pekatu lafiak diranean.

Pekatuak aitortzerakoan begitu bear da, ea oietakoren batek izan duan aldagafirik. Zer da ordea pekatuaren aldagafia? Pekatuaren aldagafia, mota bateko pekatua zana, beste mota batekoa egiten duen zerbait da. Gaiztakeri bat beraz, bi agindu ausi edo bi onbide (birtute) austen diranean gertatzen da ori.

Emagun gazte batek bere aita iltzen duela; onek ez luke naikoa, gizon bat il duela esatea, boskañen aginduaz landara, laugañena ere ausi baitu. Bere umeen afean birauak esan dituen aitak, birauaz bigañen agindua ausi duela esatea ezta naikoa, pekatu ua egitean, laugañen agindua ere ausi bai zuen. Pekatu ori bere umeen afean esateak aldatzen du ba, edo aunditzen du pekatua, beste pekatu bat egiteraño. Ta pekatu batetik, bi egiñazten dizkigun pekatuaren aldagafiak edo aundigafiak, aitortu bear dira. Ori erakusten du Trento'ko Batzafe santuak.

*(Orbiñengoan azkena) Intza'r D. An.*




Añasateko Osiña.


# Ikasi..! Ikasi..!



4.—Donosti aldetik zer befi dakartzu?  
Itxasoak urik, oraindik bai al du?



5.—Befi au dakart nik: Daudela Lasarten  
seireun malukari pertza bat egiten;  
bakoitza alde bana, danok ari joka,  
iñork entzun gabe batak besten otsa.




6.—Josus... ori pertza! Ta ori zertako da?  
Norako nai dute, ofelako tresna?



7.—Irureun ariak beren ariekin,  
Beingoz egosteko azatxo arekin.

# Abiñako Antonio Deuna



ARAGARILAREN amairugañen eguna. Paduako Antonio Deunaren jaia. *Si quaeris miracula... Ora pro nobis Beate Antoni...* Bilbon naiz. Goiz-giro edefa. Bederatziazi eta laurdenetan Bermeoko tafañtan sartu eta abiatu gera. Agur, Begoñako Ama; begira gaitzatzu!

Atzera gelditu da uri aundia. Ibaizabaletik gora eldu gera Zornotzaraño. Orain ezkefeta-ra... Gernikan gera: *Adoratzen zaitugu, Arbola santua!* Au ibañalde edefa! Forua, Murueta, Busturia, Sukarieta... Nik emen atera bear det.

Ixasgañean, lore artean, jauregi edefa... *Tilin, tilin...* Neskamea dator... Egun on! Au al da T. jaunaren etxea?—Bai, jauna.—Etxean al da bera?—Ez, jauna; San Antoniora joanak dira guziak.—Ba al dakizu noiz etofiko diran?—Amaikaterdiak inguruan.—Itxoin egingo diet.—Sar bedi... *Pakea ta zoriona etxe oni eta bertan bizi diran guziak.*

\* \*

Iru ordu laurdenen buruan etofi zan jauregiko nagusia bere sendiarekin. Alkari agur egin genion eta gure lenengo izketa eguneko jaiaz eta elizkizunaz izan zan.

Beste urtetan bezelaxe, kristau asko bildu zan Abiñako Antonio Deunaren elizatzaren inguruan; batez ere Bermeotik añañtze asko zan. Sukarietako apaiz jaunak eman zuan Meza Nagusia eta Bermeoko Aita Prantziskarak egin zuan Antonio Deunaren gorespen-itzaldia.

Añatsaldean ere jende asko bildu zan Antonio Deunaren irudiaren añañ; guziak zerbait eskatzera edo artutako zenbait meseden ordañez eskefona erakustera. Ni ere izan nintzan eta otoitz egin nion Antonio Deunari, lagun nuan, sendi jainkozkoren alde eta gure irakurle Antoniozalen alde.

Zenbat biotzkada egun artan: batzuek pozgariak eta besteak beriz negarriak!

\* \*

Aspaldietako urtetan Bizkaian esaten danez, Paduako Antonio Deunaren amaldeko amandrea, amona, *Abiña* etxean, Sandi-Andereko eliza zañaren ondoan, gaurko Sukarietako lufetan jaio zan.

Antonio Deunak, Prantziko Tolosan zalarik, Italira itzuli baiño len, bere amandrearen sorteria ikusi nai izan zuan. Abiñara etofi eta bere amandrearen jaiotetxean bi egun egon ondoren itzuli zan Italiara.


Emezortzigañen mendearen azken aldera, Gernikako andre jainkozko batek, iñzorian zalarik, sendatzen bazan, Abiñan aren izenekko elizatzoa goratzeko bidea egingo zuala agindu zion Antonio Deunari, eta irudia berak eramango zuala.

Andrea sendatu zan; eta Busturi eta inguru guziko kristauak egin zuten Antonio Deunaren elizatzoa, Abiñagako ondartzan, Sandi-Andere zañeko zuñbiaren ondoan, amandrearen jaiotetxetik bertan.

Jaungoikoaren aintza eta Antonio Deunaren gorapenetan. Alaxen.

1929-VIII-8

Ereñotzu



### Zine ta moda Afrika'ko beltzen artean.

Beko Afrika'ko beltzen artean ikaragarfizio aldaketa egin dute oitura onak. Lizunkeria beren artean oso asko zabaldu da ta onek legea austera askotan bultzatzen ditu, batez ere andre ta neska zuriakin arkitzen diranean. Onegatik bat edo bati bizitza kendu bear izan zaio guziak maite duten epaile (juez) katoliko baten aginduz. ¿Nondik eta nola oitura gaiztoen zabaltzea beltzen artean? Emakumeak daramazkiten jantzi berriak eta zinean erakusten diran gauza gaiztoak kalte aundia egin dute beltzen artean; beren griñak ernarazi ta gero edozein gauza egitera eramaten dituzte. Ala diote ango bi periodikuak eta ez katolikoak.

### Aurantzat etxe berri bat.

Oraindaño txinatarak etzituzten nolanai beren semeak iñoren eskuetan jartzen eta askoz gutxiago Europakoa izanik. Gauzak aldatu dira. Txintxow erian, gurasoak berak, katolikoak eta ez katolikoak, Gotzai edo obispoari eskatu diote beren semientzat etxe bat irikitzeke, Beren gogoak bete dira. Mayatzean iriki zan etxea ta onezkero 65 aur bizi dira monjen ardurapean. Aur geyenak katolikoak dira. Guziak etxe aberatsetakoak dira, baño beartsuenak ere ez dute uts-egingo, goikoak egiten dutena ikusirik. Igandetan auren amak eta beste emakumeak etxe ontan biltzen dira, monjakin eguna igarotzera.

### Igandean lanik egin ez dedin.

Canada'ko katolikoak miñez ikusten ari dira zein eraz ufatzen dan igandetako jai; lantegiak geitu diranetik, langileak gero ta gutxiago begirutzen diote. Ango legeak igandeko lana debekatua daukatelako, katolikoak gobernuagandik irixti nai dute legeak gordeazi ditzala. Quebec'ko probintzian ilabete osoa artu dute, igandeko jaiaren alde lan egiteko. Iru igandetan elizetan ontaz itz egin dute; ontaz periodiku ta aldizkingi guziak. Ikastetxe guzietan aurfai etzaie beste gauza erakutsi. Idazki-azaletan (sobres) ere itz oyek «Igandea gorde» jafi dituzte. Gauza guzietan Jaungoikoaren laguntza beafa dalako, ilabete ortan monja ta praiñak ori eskatu diote batez ere beren otoiñtzean. Azia ugari bota da ba. Bedeinkatuko al du Jaungoikoak.

### Afganistan'go ateak itxita.

Guziak jakiña da zein nastuak ibili diran Asia'ko alderdi ortan, beren efregeak beste aldetako oitura berriak sartu nai zituelako. Efregea bota arte ez dira paketu. Onen atzetik etofi danak asmo au ekañi du: oitura berriak kendu ta len-

go zafak ondo ondo gorde. Oitura beririk nai ez badute, gutxiago naiko dute katolikoen erlijioa, beren legeak Mahoma besterik ez dute nai ta. Onegatik esan ditek Afganistan'go ateak itxita daudela, orain beñepein, mixiolari katolikoentzat.

### Jaunari eskefak emateko.

Orain eun urte kendu zitzaizkien Irlandafai katolikoak izateko traba guziak. Afezkero bildurik gabe erakutsi al izan dute beren sinismena. Jaunari eskefak emateko, jai aundiak gertu edo prestatuta zeuzkaten eta egitan edefak izan dira. Irlanda'ko txoko guzietatik etori dira, bide luzeak egiñaz, eta Dublin'en bildu dira. Asko ta askok orain ikusi dute lenengo aldiz Dublin. Guziak, protestanteak berak ere, arituta utzi dituen izan da agirian eman dan meza ta onen ondorengo prozesioa. Zortzinaka, eun mila joan ziran Jaunari lagunduak eta beste irureun mila egongo ziran prozesioa ikusten. Edefa izan da batez ere egun oyetan Irlandar guziak, alde batera beren eztabaidak utzita, erakutsi duten anaitasuna. Iraunaziko al dio Jaungoikoak Irlandaren artean anaitasun oni.

### Alkartasun baten lan edefa.

«Catholik Guild of Israel» da alkartasun onen izena ta judioak gure Elizara ekartzen lan egiten du. Eri askotan bota duten azia ez da alpefikakoa izan. Joan dan urtean Polonia'n eun bat katoliko egin dira; geyenak izen aundiko ta aberatsak. Au bera ikusten da Japon'en; ala diote beintzat Yokoama ta Tokio'tik datozen beriak. Alkartasun onek New-York'en ere itzaldiak egin eta gure Eliza nola dan erakusteko asmoak ditu, baño agirian, Londres'en egiten duen bezela.

### Aita Santuaren egun aundiaren ondorean.

Jauna bere eskuetan eramanaz, Aita Santuak egin duen lenengo ateraldiak katolikoen biotzak poztu ditu. 1870'ko Agofaren 19'an atera zan azkenengo aldiz Pio IX-gařena. Pio XI'gařenak antz-eman ote zion egun aundi oni, Aita Santu egin da gero, Roma ta munduari, Urbi et Orbi, bedeinkazioa eman zienean Vaticano'ko leytotik? «Egun ontan, dio Alemani'ko periodiku batek, kristauen biotz guziak era batera pilpiratu dira Vaticano ta Eřoma'ko beste 500 elizetako ezki-la bezela.» Beste batek dio: «Jauna bere eskuetan eramanaz, munduari esan nai dio Aita Santuak zertarako nai duen azkatasuna. Biyar animen artzaiak izango diran 5.000 apaizgaiakin atera da Aita Santua prozesioan, dio beste periodiko batek, eta onela erakutsi nai izan du, Italiarekin pakea egin duanean, ez dio-la beste gauzari begiratu, Eliza ta bere eskubideak gordetzeari baizik.»



Ilabete onen amairugařen egunean meza bat emango da «ZERUKO ARGIAREN» irakurle, ta ongile guztien alde, Antonio Santuaren aldarean.